



**1.ZER EGIN BEHAR DUGU GURE SEME-ALABAK ELEBIDUNAK IZAN DAITEZEN ETA BAI EUSKARA ETA BATI GAZTELANIA MENPERA DITZATEN?**

Funtsezkoa da bere bi hizkuntzekiko balorazio positiboa izatea ekintza kultural anitzetara hurbiltzea. Irakurketarako ohitura oso garrantzitsua da benetako elebitasuna garatzeko.

**2.GURASO BAT EUSKALDUNA ETA BESTEA ERDALDUNA. ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN BEHAR DIOGU GURE SEME-ALABARI?**

Erabili behar den estrategia norberak bere hizkuntzaz egitea dela, eta biek eskatuko diote seme-alabari norberari bere hizkuntzaz aritzea: honela elebitasun orekatua lortuko da.

**3.GURE SEME-ALABARI BI HIZKUNTZATAN HITZ EGIN AHAL DIOGU -EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ- BATERA?**

Hizkuntza menperatu arte hobe da umeak pertsona bakoitzarekin edo euskaraz edo gaztelaniaz egitea nahasketak sor ez daitezen- Gerora, normala izaten da umeak pertsona berarekin bi hizkuntzak erabiltzea

**4.ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN BEHAR DUGU EUSKARA EZ DAKIEN NORBAITEKIN HITZ EGITEN ARI BAGARA?**

Hizkuntza bat gutxitua denean, euskara kasu, umearen aurrean prestigioa hartu behar du berak erabiltzea nahi badugu. Gurasoak umeari beti etxeko hizkuntzan zuzendu behar zaizkio eta erdaldunari itzuli.

## **5-EZ DUT EUSKARA OSO ONDO MENDERATZEN. NIRE SEME-ALABEKIN ERABILI BEHAR DUT?**

Zure seme-alabarentzat hizkuntzan eredu txarra izan baino lehenago hobe duzu umeari gaztelaniaz egitea.

Hala ere, gaztelaniaz hitz eginda ere, ez ahaztu euskara ere goraiatu behar duzula: agurrak, esaldi errazak, zorionak,...

Honekin batera, oso inportatea da umeak euskaren kulturaren ere sartzea.

## **6.NIRE SEME-ALABAK BI HIZKUNTZAK NAHASTEN DITU. ZER EGIN BEHAR DUGU?**

Oso normala da. Askotan umeak ez du hizkuntza bateko hitz bat ezagutzen eta beste hizkuntzatik hartzen du. Honelakoetan umeari eredu garbia eman behar diogu ahal den guztietan ondo bereganatu arte. Adibidez:

- Pantaloi hauek ez zaizkit gustatzen!
- Oso praka politak dira.

## **7.BIGARREN HIZKUNTZA BAT IKASTEAK GUTXITZEN AL DU LEHENENGO HIZKUNTZAREN ERRENDIMENDUA?**

Hizkuntzak zein bere aldetik garatzen dira, batean ikasten dena aldi berean bestean ere erabilgarria da.

Ikerketek diotenez, elebidunak gutxienez elebakarrak bezain burutsuak dira inteligentzia frogetan.Orokorrean erraztasun gehiago agertzen dute arrazonamenduan, pentsatzeko malgutasunean, komunikatzeko gaitasunean, pentsatzeko ahalmenean...

## **8.GURE SEME-ALABAK BERE HIZKUNTZA BIAK ERDIZKA IKASIKO DITU ETA EZ BAKARRA ERABILIKO BALU BEZAIN ONDO?**

Eza da zelan horrela izan behar. Umeen ikasteko gaitasunak ez dauka mugarik. Munduko biztanleriaren bi herenak elebidunak.

## **9.GURE SEME-ALABAK ESKOLAN TXARTO DABIL. EUSKARAZ IKASTEN DUELAKO IZAN DAITEKE?**

Orokorrean ume batek hizkuntza bat ikasteko behar duen denborak ez dauka zerikusirik ikasketak ondo burutzearekin ala ez. Ikerketa batzuek diotenez, ezin zaio elebitasunari umeen eskola-porrota eragotzi.

**10-GURE SEME-ALABEI ESKOLAKO ETXERAKO LANAK EGITEN LAGUNDU NAHI DIEGU, BAINA EUSKARAZ EZ DAKIGU. IKASIKO GENUKE BAINO MUNDU OSOAK DAKI HIZKUNTZA BERRRI BAT IKASTEKO NAGUSIOI UMEEI BAIONO GEHIAGO KOSTATZEN ZAIGULA.**

Egia da une txikiek hizkuntza berriaren hoskera errazago hartzen dutela, baina gazteek eta helduek pentsatzeko duten ahalmenagatik azkarrago ikasiko dute ume txikiek baino. Beraz, zuen seme-alabei ikasketetan lagundu nahi izanez gero, oso gomendagarria izango litzateke zuek euskara ikastea. Ikasi ezingo bazenute zuen seme-alabek etxerako lanak itzuli ahal dizkizute.

**11.GURE SEME-ALABAK ELEBIDUNAK DIRA. NOIZ IZANGO DIRA GAUZA HIZKUNTZA BATETIK BESTERA ITZULTZEKO?**

Umek hizkuntza batetik bestera itzultzeak badauka oso alde ona, umeak inportante sentitzen baitira eta seme-alaben arteko harremanak sendotzen dira. Gurasoek beti baloratu beharko dute esfortzu horrek.

**12.GURE SEME-ALABAK BADAUKA DIAGNOSTITAKO ARAZO BAT (IKASTEKO ZAILTASUNA, HIZKUNTZAREKIN ARAZOAK, SENTIMENDU-ARAZOAK...) HINZKUNTZA BAKARREAN HITZ EGIN BEHAR DIOGU?**

Ume elebidunek halako arazoak izan ditzakete, bai, biana elebitasuna ez da horren arrazoia. Bost umetik batek hizkuntza-arazo arinak izaten ditu eta normalean ezer berezirik gabe edo espezialisten laguntzaz zuzentzen dira.

**13.ZENTZUDUNA AL DA GURE SEME-ALABA HIRU HIZKUNTZAK BATERA IKASTEAK?**

Eleaniztasuna oso arrunta eta naturala da. Kontutan hartzeko puntu bakarra da hiru hizkuntzetatik bat gutxienez sakon landu behar dela, hau da, gutxienez hiru hizkuntzetako batean umeak bere adinari dagokion mailan jakin behar duela.

**14.IRAKURKETA-PROZESUA ZEIN HIZKUNTZETAN IKASI BEHAR DUTE LEHENENGOZ?**

Hizkuntza batean irakurtzen jakiteak asko erraztuko du bigarren hizkuntzan irakurtzea. Umeak ez du birritan irakurtzen ikasi behar. Gainera, bigarren hizkuntzan irakurtzea asko laguntzen dio

hizkuntza hori ikasteari, are gehiago hizkuntza hori gutxitua denean eta umeak praktikatzeko aukera gutxi duenean.

### **15.GURE SEME-ALABAK DAKIZKIEN BI HIZKUNTZAK DESBERDIN IDAZTEN BADIRA, HORREK EZ DIO ARAZORIK SORTUKO IDATZEN ETA IRKURTZEN IKASTERAKOAN?**

Bi hizkuntzetako idazkerak berdina dira, ortografia arau batzuk salbu, eta praktikarekin arazo horiek erraz zuzenduko dira umeak nahiko irakurri eta idazten badu

### **16.NOIZ HASI BEHAR DU UMEAK BIGARREN HIZKUNTZAN IRAKURTZEN?**

Inportantena irakurtzea da, eta gogoratu zenbat eta gehiago irakurri orduan eta hobeto idatziko dutela umeek. Irakurketak, umearen gustuko ekintza izan behar du.

### **5 IDEIA EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEN LAGUNTZEKO**

- Eskolaz kanpoko ekintzak egiten badituzte euskaraz egiteko aukera eman.
- Jolastu beraiekin: abesti eta esaldi batzuk ikasi umeekin erabiltzeko.
- Eguneroko esaldiak erabili, lagunekin daudenean ere:

¿A qué estáis jugando?/ Zertara ari zarete jolasten?

¿Qué habéis hecho hoy?/ Zer egin duzue gaur?

- Euskaraz dakiten gurasoei gure seme-alabekin euskaraz hitz egitea eskatu
- Errefortzu positiboak eman euskaraz ari direnean: animoak, zorionak etab.